



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

Bengoetxeak konpromisoa hartu dau, Aldundia "bere kudeaketa ereduan barritzailea izan daiten"

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Ibone Bengoetxeak bere ibilpide orria aurkeztu dau agintaldi honetarako Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean. Bertan, publikoa dan horren kudeaketan "aldaketea" ekarriko dauen "politikea egiteko modu barria" aurkeztu dau; "zerbitzuan" oinarritutako administrazioa, helburu argiagaz: herritarrentzat "gardenagoa, partaidetzan gehiago oinarritutakoa, zabalagoa eta gertuagokoa" izatea. Bere erronka, agintaldi hau amaitu aurretik kudeaketa ereduari jagokonez Administrazio "moderno eta barritzailea" lortzea da, etengabeko hobekuntza sistemak aplikauz, Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean izandako lehenengo agerraldian azaldu dauenez.

Horretarako, agintaldi honetan "modernizazio prozesu" sakonari ekingo jako, ez kudeaketa tresnetan eta metodologietan bakarrik, Foru Aldundiaren beraren antolakuntza eta balio kulturari jagokonez be. Herritarrei arreta "personalizatu, integrala eta diziplina guztietakoa" eskiniko deus "kanal eta plataforma anitzeko" administrazio elektronikoa eredu martxan jartea bultzatuko da. Horretarako, diputatu andreak berbetan, edozein plataformatik erabilerraza izango dan erakundearen egoitza elektronikoa bultzatu beharko da. Helburua identifikazio eta sinadura elektronikoa sistema barria ezartzea da, konpromiso argi batez: herritarrak ez daizala Administrazioaren esku dagozan agiriak barriro aurkeztu behar.

Bengoetxeak hainbat foru arautan oinarrituz egituratuko dau Lurralde Administrazioaren eraldaketa hori. Alde batetik, "gubernuko 100 egun bete baino lehen", Gardentasunari buruzko Foru Arauaren Aurre-proiektua onartuko da Gobernu Kontseiluan. Horren ostean, Aldundiak beste arauzko proiektu bat aurkeztuko dau, Aldundiko kargu publikoen integritadea, interes gatazken prebentzioa eta bateraezintasunak zaintzeko. Arau biak Bizkaiko Batzar Nagusietan eztabaidatu eta onartu beharko dira.

Aldaketa horreekaz batera, gardentasunari buruzko Foru Aldundiaren webgune barria jarriko da martxan, eta bertan erakundearen "Datu Zabalak" eredu hedatuko da, datuak modu errazean berrerabili eta ulertu ahal izan daitezkan, "hizkuntza ulerterraza erabiliz", azpimarratu dauenez. Batzarretako taldeei emondako erantzunean, Bengoetxeak baieztu dau gune horrek Foru Administrazioaren esleipendunen erregistroa be jasoko dauela. "Kontratu guztiak ikusi ahal izango dira".

Beste gauza batzuen artean, Aldundiaren esku dagozan eraikinen energia sistema egokitzea jasoko dauen errazializazio plana be jarriko da martxan, errendimendua eta eraginkortasuna hobetzeko, eta Bizkaiko Administrazioetarako "erosketa gune bateratu" sortuko da. Administrazio horreen artean Foru Administrazioaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Lurraldeko toki erakundearen esku dagozan erakunde publikoak be badagoz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ESKUALDEETAKO BULEGOAK INDARTZEA

Sailaren erronketako bat, Lurraldean banatuta dagozan Aldundiaren eskualdeetako bulegoak erabateko arreta, informazioa eta izapidetzea eskiniko daben leihatila bakar bilakatzea izango da, gaur egun nagusi dan gune hermetiko eredia gaingituz.

Beste helburuetako bat, Bizkaiko Foru Aldundiak toki erakundeen esku jarten dituan zerbitzu berezi guztiak katalogo batean batzea da, informazioa eta horreetara sartzeko aukerea errazteko. Bertan ez da faltako "Udala Zabaltzen" izeneko Gobernu Zabaleko plataformari buruzko informazioa.

Amaitzeko, larrialdien arloan, agintaldi honetan holango egoeran zerikusia daben sail guztiak batuko dituan larrialdietako zentrala sortzea aurreikusi da, muturreko egoeretan "krisi mahai" moduan aritu daiten. Suhiltzaile parke zaharretako batzuk barriztatzea eta parke mobikorraren, ekipamenduen eta materialen parte bat ordezkatzeta be aurreikusten da.

Ekimen horreek guztiek euren kronograma eta aurrekontua izango dabe, eta jagokon unean Batzar Nagusien aurrean aurkeztuko dira. Lehenengo partidak aurrekontuei buruzko saioan ezagutuko dira. Epeei buruz galdetuta, Bengoetxeak agintaldi honetan gauzatuko dirala esan dau.

BATZARRETAKO TALDEAK

Diputatu andrearen azalpenen ostean, Javier Ruiz PP-ko bozeroaleak eskaerea egin deutso Bengoetxeari, eta esan dau Aldundiak egin behar dauena enpresa sektore publikoaren taimainua txikitzea dala, bere eretxiz "handiegia" dalako eta "lanpostuak lortzeko agentzia" bilakatu dalako. Ordezkarri popularrak "bikoiztasunak" eta "klientelismoa" desagertu arazotea gura dau. Bere berbetan, 30 urteko gobernu jeltzaleen ondorioa dan jardunbide "onartezina" da hori.

Bizkaiko Ahal Dugu taldeko Asun Merinerok, bere aldetik, Aldundi honen gardentasuneko lanean "ez daukala konfiantzarik" adierazo dau, eta Administrazioa zabaltzeko eskaria egin dau, pertsonen parte hartzeko eta kudeaketa publikoa kontrolatuko aukerea izan daien, zergak zertan gastetan diran erabagi ahal izateko. Egungo Foru Gobernuak proponidu dituan aldaketek herritarren artean "bretxa digitala" ez daiela handitu eskatu dau, "jente guztiak ez ditualako ezagutza telematiko berberak", adierazo dau.

Beste tonu batean, Carlos Totorika PSE-EE-ko bozeroalea bat etorri da Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako sailaren ildo estrategikoekin. "Nik egingo neukeana da", esan dau, PP eta Ahal Dugu taldeen esku-hartze "tremendisten" aurrean bere nahigabea adierazo aurretik. Bere txandan iradokizun bat egin dau: "Bizkaiko Udalek Batzar Nagusi horreetan entzunak izateko aukerea izan deiel", Bizkaiko ordezkariak udalen beharrak ezagutu daiezan.

Joseba Gezuraga EH Bilduko ordezkariak modu positiboan azpimarratu dau arretarako gune fisikoen bitartez eskualdeetara heltzearen ideia. PP-gaz bat etorritz, esleipenak dituen enpresen erregistroa sortzea eskatu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

IDAZKARITZA AHAL DUGUKO ASUN MERINERORENTZAT

Asun Merinero Bizkaiko Ahal Dugu taldeko batzordekideak hartuko dau Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordearen Mahaiko idazkaritza. Batzar Nagusietako talde barriko ordezkariak aldeko 11 boto jaso ditu, 15 kidek osatutako batzordean. Batzordekide batek boto zuria emon dau, eta, ohikoa izaten ari danez, EH Bilduko hiru ordezkariak bozketan ez parte hartzea erabagi dabe. Bizkaiko Ahal Dugu taldearen eskuetan geratzen dan laugarren Idazkaritza da, atzo Ekonomia eta Ogasuneko eta Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko batzordeetakoak eta gaur goizean Euskera eta Kulturakoa lortu ostean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Bengoetxea quiere que la Diputación se convierta en una administración "innovadora en su modelo de gestión"

Bilbao, a 18 de septiembre de 2015

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, durante su comparecencia de hoy en la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia, ha fijado su hoja de ruta para la presente legislatura en donde ha presentado una "nueva forma de hacer política" que traerá un "cambio" en la gestión de lo público; una Administración "de servicio", con una intención meridiana: ser "más transparente, más participativa, más abierta y más cercana" para la ciudadanía. Su reto es conseguir antes de que concluya este mandato una Administración "moderna e innovadora en su modelo de gestión", aplicando sistemas de mejora continua, ha explicado en su primera intervención en la Cámara vizcaína.

Para ello, en la presente legislatura se va a acometer un profundo "proceso de modernización", no sólo en cuanto a las herramientas y metodologías de gestión, sino también con respecto a la cultura organizativa y de valores de la propia Diputación Foral. Se va a impulsar la puesta en marcha de un modelo de administración electrónica "multicanal y multiplataforma", que ofrezca una atención ciudadana "personalizada, integral y multidisciplinar". Ello implica impulsar -según ella- la sede electrónica de la institución, accesible desde cualquier plataforma. La idea es implantar nuevos sistemas de identificación y firma electrónica, y un compromiso claro: que el ciudadano no tenga que aportar documentos que estén en poder de la Administración.

Bengoetxea hará pivotar esta transformación de la Administración territorial apoyándose en varias normas forales. Por un lado, "antes de que se cumplan 100 días de gobierno", aprobarán en Consejo de Gobierno un Anteproyecto de la Norma Foral de Transparencia. Seguida a ésta, la Diputación presentará otro proyecto normativo para velar por la integridad, la prevención de conflictos de interés y las incompatibilidades de los cargos públicos forales. Ambas, tendrán que ser debatidas y aprobadas en las Juntas Generales de Bizkaia.

Unido a estos cambios, se lanzará un nuevo portal web de la Diputación Foral sobre transparencia, en la que se desplegará el modelo de "Datos Abiertos" de la institución, con la intención de que los datos puedan ser reutilizados y comprendidos fácilmente, "con un lenguaje sencillo", ha remarcado. En respuesta a los grupos junteros, Bengoetxea ha confirmado que este sitio incorporará un registro de adjudicadores de la Administración foral. "Se visualizarán todos los contratos".

También se pondrá en marcha un plan de racionalización que contempla, entre otras cosas, la adaptación del sistema energético de los edificios forales para mejorar su rendimiento y eficiencia, y la creación de una "central de compras unificada" para las Administraciones de Bizkaia, lo que incluye, además de a la propia administración foral, a las entidades públicas adscritas a la Diputación Foral de Bizkaia y a las entidades locales del Territorio.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

POTENCIAR LAS OFICINAS COMARCALES

Uno de los retos del departamento será convertir las oficinas comarcales de la Diputación que hay repartidas por el Territorio en ventanillas únicas de atención, información y tramitación integrales, superando el modelo actual de compartimentos estancos.

Otro de los objetivos es recopilar en un catálogo el conjunto de servicios específicos que la Diputación Foral de Bizkaia pone a disposición de las entidades locales, para facilitar la información y el acceso a los mismos. En él, no faltará información sobre una plataforma de Gobierno Abierto denominada "Udala Zabaltzen".

Por último, en el capítulo de emergencias, está previsto crear en esta legislatura una central de emergencias que aglutine todas las áreas que se ven afectadas en una situación de esta índole y que pueda ejercer como "mesa de crisis" en situaciones extremas. También se contempla renovar algunos de los parques de bomberos más antiguos, y sustituir parte del parque móvil, equipamientos y materiales.

Todas estas iniciativas tendrán su correspondiente cronograma y presupuesto que será presentado, en su momento, en las Juntas Generales. Las primeras partidas se conocerán con el futuro debate presupuestario. Preguntada por los plazos, Bengoetxea ha dicho que éstos se materializarán a lo largo de la presente legislatura.

GRUPOS JUNTEROS

Tras las explicaciones de la diputada, el portavoz del PP, Javier Ruiz, ha pedido a Bengoetxea que lo que tiene que hacer este Gobierno es reducir el tamaño del sector público empresarial que, a su juicio, está "sobredimensionado" y se ha convertido en una "agencia de colocación". El representante popular espera también que se eliminen tanto las "duplicidades" como el "clientelismo", una práctica esta última "inaceptable" que es consecuencia de 30 años de gobierno jeltzale.

Por su parte, la representante de Podemos Bizkaia, Asun Merinero, ha dicho que "no confía" en la labor de transparencia de esta Diputación y ha pedido abrir la Administración para que las personas participen y puedan controlar la gestión pública, incluso para que puedan decidir en qué se gastan los impuestos. Ha pedido que los cambios propuestos por el actual Gobierno foral no provoquen más "brecha digital" entre la ciudadanía, ya que "no todo el mundo tiene los mismos conocimientos telemáticos", ha señalado.

En otro tono, el portavoz del PSE-EE, Carlos Totorika, ha compartido las líneas estratégicas del departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales. "Es lo que haría yo", ha dicho antes de lamentar las intervenciones "tremendistas" de PP y Podemos. En su intervención, ha lanzado una sugerencia: "que los ayuntamientos vizcaínos tengan la oportunidad de ser escuchados en las mismas Juntas Generales" para que los representantes vizcaínos conozcan sus necesidades.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El representante de EH Bildu, Joseba Gezuraga, ha destacado positivamente la idea de que se llegue a las comarcas a través de espacios físicos de atención. Coincidiendo con el PP, ha solicitado que se cree un registro de empresas adjudicatarias.

SECRETARIA PARA ASUN MERINERO, DE PODEMOS

La juntera de Podemos Bizkaia Asun Merinero ocupará la secretaría de la Mesa de la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia. La representante del nuevo grupo parlamentario ha recibido 11 votos, de un total de 15 miembros. Un juntero ha votado en blanco y, como viene siendo una constante, los tres representantes de EH Bildu han decidido no participar en la votación. Es la cuarta secretaría que cae en manos de Podemos Bizkaia tras las conseguidas ayer en las comisiones de Economía y Hacienda, y de Sostenibilidad y Medio Natural, y esta mañana en Euskera y Cultura.